

1994ko ekainak 10

239. zenb.

PRESS

# ARRASATE

**Eskola ere  
Europari  
begira**

HAUTESKUNDEAK



«Les Misérables» musikaiaren selekzioan oinarritutako ikuzkizuna

# Miserableak

**ARRASATE  
EKAINAK 18,  
ZAPATUA**

**GAUEKO 10.30etan  
SARRERA: 1.200 PTA**



**SARRERAK SALGAI**  
Ekainaren 13tik 17ra  
Amaia Antzokiko takilan 20etatik 21era



**ARRASATEKO UDALA**

# Belarri haundi

**O**n Martin aspaldi jaio zen. Haur bikaña, osasuntsua, baina... lastima! belarriek aza horriak ziruditen, handiak benetan.

Txikitan, -ai umeak-, zenbat alditan ez ote zuen Martintxok "Belarri haundi!...belarri haundi!..." eta antzerako burlak bere belarri handiekin entzun behar izan!... Hala ere, mutiko azkarra eta maitagarria suertatu zen. Kozkortu zenean "Dumbo", "Haize bolara batek jotzen badik, ah zelako aeroplanoa" eta antzerako bromak egiten zizkioten lagunek. Mutikoa, gero eta jatorrago hazten ari zen, gero eta lagunago zihonan eta guztien errespetoa eta onginahia irabazi zituen. Ongi ezagutzen zutenek maite zuten Martin gaztea. Gaur egun gizon errespetatua, ongi ikusia eta baloratua dugu On Martin.

Baina badira iraindik ere itxurazaleak eta ezagutzen ez dutenek belarriak besterik ez dizkiote ikusten; bestean lepo barre egiten ohiak, bere azalkean, arlotzetat hartzen dute, Martinen bihotza eta bere kideena saminduz.

Ez dakit ongi ekarria dagoen ipuia, baina oraingo hontan Elizarekiko itxurazale eta ezjakin ugari dagoela salatu nahi nuke.

Akatsak dituela? Noski. Giza mailan inor ez gara "perfekto" eta erakunde mailan gutxiago. Eleizak baditu bere akats eta pekatuak; ez ditu ukatzen -ez da gutxi-, aitortu egiten ditu.

Barrundik ezagutu eta Eliza maite dugunok, belarriak ezezik, beste gauza eder eta mamitsuak ere ikusten dizkiogu, bere herri-maitasun eta zerbitzuaren berri badugu.

Gai batzuetan ez datorrela bat gaurko munduarekin? Noski; eta bere eskubidean dago. Akaso zu zerorri gaurko joera gutziekin ados zaude? Bat ez etortzearen eskubidea emango diozu, edo ez?


Bere garaian, ulertezina izan zen Jesusen Berri Ona ere; eta begibistatik kendu zuten

Jesus gurutzera eramenez. Historia berrizatu guran edo, gaurko Apaiz Nagusi Laikoek, Pilatosen antzeko politikariek, farisear fundamentalistek eta herritar manejarriek, gure ustetan munduarentzat osasungarri den Berri Ona zabaltzen saiatzen garenok, "gurtziltzatuak" ikusi nahi gintuzkete. Tamalgarría, baina halaxe dirudi. Dena dela, jakin ezazue Jesusen historia ez dela bukatu oraindik, ez eta bukatuko ere.

**Pekaturik ez duenak bota dezala lehendabiziko harria. (Jn 7,7)**

SAGARRAGA

JOSE MARI ASTIGARRAGA



Artikulu

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

¡atetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabillondu (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantza Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Anitton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrañaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés




# Egiten duzu "txuletarik" azterketetan?



**Arantza Duperu**  
**Ikaslea**  
**(20 urte)**

Ez dut kopiatzen, ez baitu ezertarako balio. Egia esan behin kopiatu nuen baina urduri jarri eta oso gaizki pasatu nuen.



**Danel Iñurritegi**  
**Ikaslea**  
**(19 urte)**

Bai, beharrezkoa bada, txuletak egiten ditut. Batez ere asko ikasi behar eta guztia ikastea ezinezkoa denean.



**Andoni Barrutia**  
**Ikaslea**  
**(16 urte)**

Bai, egiten ditut "txuletak". Zerbait gogoratzea zaila denean edo ikasteko asko daukadanean egiten ditut.



**Lur Pagoaga**  
**Ikaslea**  
**(16 urte)**

Bai, baina gutxi. Egiten dudanean, orri txiki batean idazten dut edo mahai gainean.



**Susana Barkero**  
**Ikaslea**  
**(17 urte)**

Batzutan kopiatzen dut, batez ere ikasteko astirik ez daukadanean. Horrelako kasuetan mahaian idazten ditut datu batzuk.



**Andoni Zeziaga**  
**Ikaslea**  
**(18 urte)**

Beharrezkoa denean bai, baina bestela ez.



**Amaia Uribarren**  
**Ikaslea**  
**(13 urte)**

Nik ikasi egiten dut, beraz, ez dut txuletarik egiten. Ez dakidanean, ez dut ezer idazten eta kitto.



**MIKEL ELORZA ETXEBARRIA**  
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria  
Arrisku gerentea  
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5º-A  
Tfnoa: 43 04 14  
Fax: 43 11 01  
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea  
Tfnoa-Fax: 77 13 09  
20.500 ARRASATE

.....  
**ELEKTRONIKA**  
**ARTIKULUEN**  
**SALMENTA**  
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igualatorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 Oñati ..... 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitate (iberduero) ..... 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 79 78 44  
 ..... 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abarao jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 10**  
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías  
 Gaeuz: Guallar. San Antonio (Bergara)

**Larunbata 11**  
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.  
 Gaeuz: Estella. Matxiategi. (Bergara)

**Igandea 12**  
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera. Muskola.  
 Gaeuz: Estella. Matxiategi. (Bergara)

**Astelehena 13**  
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.  
 Gaeuz: Mozos. Pedro Deunaren. (Bergara)

**Asteartea 14**  
 Egunez 22.00ak arte: Amezuza. Santa  
 Marina.  
 Gaeuz: Camacho. Xirondo. (Bergara)

**Asteazkena 15**  
 Egunez eta gaeuz: Ruiz. Magdalena.

**Osteguna 16**  
 Egunez eta gaeuz: Morales. San Andres.

**10 OSTIRALA**

**ZINEA**

“El jardín secreto” 7etan eta  
 9.30etan.



**AIRE ZABALEKO PINTURA**

**Lehiaketa bera ekainaren 19an izango da. 19tik 30era: Aire zabaleko pintura lehiaketa lanen erakusketa Monterronen. Ordutegia: 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara, 6etatik 8etara.**

Aretxabaletako Andra Mari Jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu dute. Teknika libre da. Kartelaren neurriak 50x70 izango dira. Kartelek derrigorrez Andra Mari jaiak 94/ abuztuak 14, 15, 16 eta 17 testua eraman beharko dute. Ekainaren 30a baino lehen, Aretxabaletako kultur Etxera bidali beharko dira.

**HIZKUNTZ EGONALDIAK**

Uztailaren 16tik 30era, Diputazioak ingelesa ikasteko egonaldia antolatu du, Segurako aterpetxean. Maila desberdinak. Matrikula 40.000 ptakoa da. Informazio gehiago, Arrasateko Gazteentzako Informazio Bulegoan.

**11 LARUNBATA**

**ZINEA**

“En tierra peligrosa” 5etan,  
 7.30etan eta 10etan.

**BIZIKLETA FESTA**

Bizikleta festa Donostiako Belodromoan. Bertan, Europa mailako txirindulari onentzuenek hartuko dute parte, kirola, ikuskizuna eta sariak nagusi izango dira.

**ZAHARREN ASTEA**

Egoileen urteroko bidaiak, aurten Hondarrabira.

**DANTZA IKUSKIZUNA**

“Corazón de Encina”k antolatuta Erregioetako dantzen lehiaketa, Amaia Antzokian. Goizeko 11etatik ordu bata arte eta arratsaldeko 4etatik 8a arte.

**INTSUMISOEN EGUNA**

11.30etan margolariak, ordu berean, bizikleta-martxa Seberotik. 1.30etan txupinazoa, ongi etorria martxari, trikitilariak, bertsolariak, txikiteoa. 3etan Bazkaria Monterronen, (bakoitzak berea eraman). 5.30etan desfilea. 6etatik 9etara Etxerat, Biona, Jai-Zale, Ekaitz, Gure-Leku, Udalaiz eta Kajoi tabernetan kontzertuak, antzerkiak eta malabarak. 10etan Gaztetxean kontzertua “Etsaiak” taldearekin. Arrasateko talde antimilitaristak antolatuta.

**12 IGANDEA**

**ZINEA**

“En tierra peligrosa” 5etan,  
 7.30etan eta 10etan.

**MENDI IRTEERA**

Amurrio-Tologorri-Ungino, irteera goizeko 7etan Garibaitik. Besaidek antolatuta.

**ZAHARREN ASTEA**

Goizeko 11etan Egoitzako kapera meza, San Viatorikas-tola taldearekin.

**SAN VIATORREKOAK ETBN**

Txirri, Mirri eta Txiribiton saioan parte hartuko dute San Viatorreko 1., 2. eta 3. mailako neska mutilek.

**MUSAKOLAKO IGERILEKUA**

Musakolako kanpoko igerilekuak ekainaren 13 eta 19 bitarteko astean zabalduko dira, 15ean seguraski, baina beti ere, eguraldiaren arabera. Ordutegia: goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte. Kanpoko piszinak zabaltzean barrukoak itxi egingo dira.



**INTSUMISOEN JAIA**

**Ekainaren 11a larunbata, Arrasateko Intsumisoen eguna, goizeko 11.30etatik aurrera ekintza ugari.**

**13 ASTELEHENA****ZINEA**

"En tierra peligrosa" 7etan eta 9.30etan.

**COMETT KONFERENTZIA  
ESKOLA POLITEKNIKOAN.**

Egun guztian zehar, Europako 300 ordezkari.

**INAUGURAZIOA**

Eskola Politeknikoaren eraikin berriaren inaugurazioa, goizeko 11etan.

**14 ASTEARTEA****ZINEA**

"En tierra peligrosa" 7etan eta 9.30etan.

**PINTURA ERAKUSKETA**

Ekainaren 19tik uztailaren 3ra: Juan Luis Goikolearen "Pintura Erakusketa" Harresi Aretoan. Ordutegia: Egutero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan: 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**HAUR DANTZARIEN  
EGUNA**

Haur dantzarian eguna antolatu da ekainaren 19rako. Egun horretan Arrasatera haur asko etorriko da eta guztiek herriko familietan bazkalduko dute. Hori dela eta, haur horiek etxera gonbidatu nahi baldin badituzue, AEDn edo HIRE liburudendan eman dezakezue izena.

**EUSKARAZ PUNTATIK  
PUNTARA**

Deba Garaiko AEK euskaltegiak ikastaroak antolatu ditu uztailerako. Maila guztiak eta EGAKo klaseak emango dira. Iraupena: 3, 4 eta 5 ordu-takoak. Matrikula epea zabalik ekainaren 13tik 29ra.

**ARABA EUSKARAZ**

Ekainaren 19an La Puebla de la Barcan izango den Araba Euskaraz festan laguntzeko, helduak, kuadrilak edo familiak behar dira. Laguntzeko prest daudenek, bezperatik zirkuitua montatzen lagundu eta jai egunean beste lantxo batzuk egin beharko dituzte. Interesatuok jarri harremanetan lehenbait lehen AEDrekin. TLF: 795446 edo 771228 zenbakietan.

**15 ASTEAZKENA****16 OSTEGUNA****HITZALDIA**


Gaia "Hezkidetzeta" 6.30etan Monterronen. Hizlariak: Pilare eta M<sup>o</sup> Jose Urrozola. Udaleko hezkuntza eta emakumearen sailek antolatuta.

**HITZALDIA**

"Menopausia" 4etan, Sta Teresa kalea 12an. Emailea: Astola sendagile-ginekologoa. Sarrera dohainik.

**ZINEA**

"Bagdad Café" 9.30etan, Amaia antzokiak. Sarrera: 300 pta; gazte txartelarekin 250 pta.

**CLOWN IKASTAROA**

Ekainaren 27tik uztailaren 1era, astelehenetik ostiralera, Clown ikastaroa. Ohiulari taldeko Virginia Imaz eta Karmelo Muñozek emango dute. Guztira, 20 ordu izango dira eta matrikula 2.000 ptakoa da. Izenematea gazteentzako informazio bulegoan.



“Maiderekin orain egun batzuk Globo Rojoko erre-dakzioan eginiko elkarrizketa irakurri dugu. Gure elkarrizketatzaileari buruz, egiazalea baina oso sinplea izan zela ikusten dugu. ARRASATE PRESSEKO erredaktorea da eta oraindik oso gaztea dela ikusten dugu. Duela hainbat denbora Chema Urcelayk, El Diario Vascokoak, egin zigun elkarrizketa gogorazi digu, eta konparaketak beti gorrotagarriak diren arren, ez da gauza bata bestearekin konparatu behar.

Ulertzen dugu Maiderekin 19 urte dituela eta hasten dagoela, baina animo, hastea da dena. Eta Globo Rojon profesionalak ez bagara ere, noizbait arazoren bat baduzu eta guk lagun bagenezake, ez izan gugana etortzeko zalantzarik.

Zorionak ARRASATE PRESSE formatoarengatik, mundu mailako errotatiboen antzekoa baita. Ahalegindu zaitez astekaria beharrean egunkaria izan dadin, Arrasateko bizitza sozial, politiko eta ekonomikoan nahikoa material badago eta”.

**Globo Rojo**

“Jose Manuel Pagoaga Gallastegi ‘Peixoto’ ezker abertzaleko historikoa, Gipuzkoako Arrasate herrian— ETako militante eta buruzagien jaioterrian— jaiotzen, Aranguren baserrian. Zazpi anai-arrebatan zaharrena izan zen eta horregatik eskolara ezin izan zuen normaltasunez joan, baserriko lanetan jardutera behartuta zegoen eta. (...)

Iturbe Abasolok bezala, euskal abertzaletasun moderatuko jendearekin harreman ugari eta anitzak izan ditu ‘Peixotok’ ere. PNVk izan zuen azken interlokutorea izan zela esaten da.

Gizon bakartizat daukate, beharbada Ekuadorreko Los Riosen misiolari sekular gisa egon zelako edo. Handik itzultzean Frantziako hegoaldera egin behar izan zuen eta bere herriko mutil batekin elkartu zen han, Domingo Iturbe Abasolorekin”.

**EL MUNDO**  
= PAIS VASCO

**Zer da “Ibailalde” eta zein ondorio atera duzue lehen ekintzatik?**

Ibailalde, “Topagune” izeneko koordinakundeak Euskal Herriko ibaien aldeko sentsibilizazioa bultzatzeko eratu duen programa da, eta koordinakunde horren barruan dago Udalako Ingurugiro Eskola ere. Zapatuan, horren inguruko ekintza puntuala egin genuen arren, astialdirako talde, ikasketetako neska-mutil eta talde ekologistei zuzendua egongo den programa udazkenean hasiko da.

Batetik, erreken egoeraz ohartarazi nahi ditugu gazteak, ibaiak zikin ikusten ohituz goazela dirudi batzuetan eta. Baina horrekin ez dut esan nahi jendea gai horrek axola ez dionik. Horregatik, talde ekologistekin ere egingo dugu ikerketa. Guk gure aldetik, Deba Ibaiari buruzko datuak hartuko ditugu eta gauza bera egingo dute Euskal Herriko beste toki batzuetan ere. Ondoren datu guztien bildumaz konklusio batzuk aterako ditugu jendea ezagutzeko. Nahiz eta oraindik benetako ikerketa egiten hasi ez garen, ez da asko aztertu behar Deba Ibaia oso egoera txarrean dagoela jakiteko. Hori esatean, ez naiz uraren koloreari buruz bakarrik hitz egiten ari, ibai ertzeko landaretza, uretako bizidunak eta orokorrean elementu guztien egoera, txarra dela esan nahi dut. Zapatuan egin genuen ekintzan parte hartu genuenok, errekan kutsadura dagoela frogatzeko aukera izan genuen. Batetik, kutsadura industrialak ikusi genuen, harrien azpian olioak baitzegoen eta bestetik etxeko kutsadura ere aurkitu genuen. Beraz, herritarrok ere akats hori zuzendu behar dugu, baina nire ustez benetako neurriak administrazioak eta enpresek hartu beharko dituzte.



**Kandi Fernandez**  
Udalako Ingurugiro  
Eskolako zuzendaria

**HAURDUNALDIRAKO ERROPAK**

- Puntuzko prakak
- Jazteko prakak
- Petoak
- Bermudak
- Gonak, soinekoak
- Bainujantziak

**LAURA**



**MODA GAZTEA**

- Praka-trajeak
- Gona-trajeak
- Soinekoak
- Blusak
- Kamisetak
- Taila bereziak ditugu

ERDIKO KALEA, 30 ASRRASATE Tfnoa: 79 05 80



# HERRIEN EUROPAREN ALDE



## EUROPAN TINKO LANEAN

Eusko Alkartasunak Europako Herrietako nazionalistekin bat egin du aurreko legegintzalditik hona burutzen ari den lanari jarraipena emateko, ondoko helburu hauek lortzeari begira:

- ★ Pertsonen gehiago arduratuko den Europa bat eratzea, solidarioagoa eta mundu osora irekiagoa izango dena.
- ★ Lehenbailehen GIZARTE EKINTZARAKO PROGRAMA gauzatzea (50 milioi europar pobrezia larrian bizi dira, 17 milioik ez dute lanik eta 30 milioi etxerik gabe daude).
- ★ Ingurugiro Politika askoz ere zorrotzago bat burutzea, eguratsarrekiko, lurzorurekiko eta gai arriskutsuekiko kontrol gehiago duena.
- ★ Europako Herrietako hizkuntza eta kultura guztiak elkarrekin bizi eta garatu daitezela lortzea.
- ★ Ekintza eraginkorrak burutzea Europa zentralizatzaile eta gardentasun gutxiko horretan, Herrien eta Eskualdeen partaidetza gehiago aitortu eta onar dadin.
- ★ 1996ko erreforman Europa federalaren alde lan egitea, funtzionamendu eraginkor eta demokratikoa ematen saiatuz, batasunaren oinarria herriarengan eta herriengan egongo litzatekeelarik batipat.
- ★ Fondoan eta Baliabideen funtzionamendua hobetzea, nazionalitate eta eskualde guztietan aurrerabide-iturri berriak sor daitezela.
- ★ Enplegua ugaritu dadila bultzatzea, dagoen lana banatzen ere ahal-eginduz, eta Lanaren gaineko zergak murriztuz.
- ★ Sektorekako Politiketara finkatutako helburuak lortzea (Nekazaritza, Arrantza, Industria, Azpiegiturak, Hezkuntza eta Komunikabideak), lan horretan Eusko Alkartasuna Europako nazionalistekin batera ari delarik.



**Europa zuzenago bat eraiki behar dugu, Herrien Europa bat, dagokigun Autodeterminazio eskubidea bideratuko duena, Europako Batasun Politikoaren barne Euskal Herriaren lurralde batasuna eta bere independentzia lor ditzagun.**

**EMAN  
BOTOA**

**EA**  
**eusko  
alkartasuna**

Herrien Europaren alde

**Ezker Batuaren hitzaldia**



Europa aurre-rakoiagoa, Estrasburgon ezkerreko alderdien presentzia areagotuz lortuko dela esan zuen Ezker Batuako arduradunak, ostegunean Monterronen eman zuen hitzaldian. Isabel Lopez de Aulestia hautagaiaren esanetan, Elkarteko erakundeen aldaketa beharrezkoa da, legebiltzarrak ahalmen legegilea izan dezan. Era berean, Europako Elkartearen politika ekonomiko neoliberalak aldatu egin behar dela esan zuen.

**EAJren bisita**



EAJren karabana Arrasatera heldu zen ostiralean. Besteak beste, Eli Galdos eta Roman Sudupe etorri ziren. Eli Galdosek adierazi zuenez, egun Europako legebiltza-

rrak ez ditu legeak egiten, baina hasiera dela eta hori lortuz joango dela azpimarratu zuen. Era berean, gure herriarentzat Europako legebiltzarrean egotea garrantzitsua dela esan zuen.

**Herri Eguna HBk**



Herri Batasunak antolatuta, Herri Eguna ospatu zen larunbatean. Eguerditik arratsalde arte, jai giroko ekintzak izan ziren egun guztian zehar: herri poteoa, haur jolasak eta herri bazkaria. Hasiera batetan, bazkaria Monterronen egitea erabaki bazen ere, eguraldiak lagundu ez zuelako, bazkarira hurbildu ziren 100 lagunak Arrano elkartearen batu ziren. Herriarren parte hartzea bultzatzeko egin zen ekintza hori.

**Garaikoetxearen bisita**



Astelehenean, Karlos Garaikoetxea, Europako Legebiltzarrerako EA-ERCaren hautagaia Eskola Politeknikoan izan zen. Garaikoetxeak, Eskola Politeknikoa eta Saiolan bisitatu zituen eta heziketa, ikerketa eta teknologiak garrantzia azpimarratu zuen Europaren aurrean.

**PSE-EEren mitina**



Asteazkenean, PSE-EE alderdiaren mitina izan zen Monterronen. Hizlari, Ana Miranda, Ramon Jauregi eta J. Antonio Maturana aritu ziren. Sozialisten esanetan, hauteskundeak irabazi egingo dituzte. Mitinaren amaierarako, intsumisoak Monterronera hurbildu ziren eta istilu txiki bat gertatu

zen, mitinetik irteten zirenen eta kanpoan zeuden intsumisoen artean.

**Epaiketa**

Asteartean Iñigo Irasuegi, 23 urtetako intsumiso arrasatearra epaitu zuten Donostian. Epaiketan, intsumisoak ez zuen tribunaleari errekonozitu.

JAIOTZAK
• Denis Sanchez Gip. Maiatzaren 19an.
• Eider Etxebarría Bergaretxe. 27an.
• Mireia Tena Garitaonandia. 29an.
• Ilenya Moto Benitez. 31an.
EZKONTZAK
• Jose Ignazio Gonzalez Pato & M <sup>re</sup> Karmen Martin Iglesias. Maiatzaren 4ean. Elizaz.
• Juan Jose Nafarrate Bolinaga & Manuela Bueno Sanchez. 4ean. Elizaz.
HILDAKOAK
Antonio Navarro Ramos. Ekainaren 1ean. 83 urte.

**ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN ELKARTEAK**  
**EGUN ERDIRAKO DINAMIZATZAILE BAT**  
**KONTRATATU BEHAR DU.**

**EGINKIZUNAK: KULTURA ETA SENTSIBILIZAZIO SAILAK DINAMIZATzea**

Hautaketa probetan parte hartu gura izan ezkerro, bidali kurrikuluma AEDra (Pablo Uranga, 4 ARRASATE) ekainaren 27a baino lehen.

Informazio gehiagotarako dei egin 77 12 28 tfnora edo etorri Pablo Uranga 6an ditugun lokaletara.

**ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA**

**MENDIA**

*Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak*

**Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59**

**PAZI-OLA**

**GALDARAGINTZAKO LANTEGIA**

Zaldispe kalea, 2  
**ARRASATE Tfnoa 79 29 94**

# “Commett” konferentzia eta eraikin berriaren inaugurazioa Eskola Politeknikoan

Datorren astelehena, ekainaren 13a, egun berezia izango da Eskolarentzat. Alde batetik, Europar Komunitateak antolatzen duen “Comett” izeneko programaren konferentzia Eskola Politeknikoan egingo da eta bestetik, eraikin berria ere astelehenean bertan inauguratuko da.

50. urteurreneko ospakizunei bukaera duina eman nahirik, Bruselaseko ministroen kontseiluak antolatzen duen eta Europa guztian oso ezaguna den “Comett” konferentzia Arrasatera ekartzeko eskatu zuen Eskolak. Horrela, Europar Elkartearen “programa izarra” bezala ezagutzen duten “Comett” konferentzia estatu mailan lehen aldiz Arrasaten estreinatuko da. “Comett”en helburu nagusia, Europako langa-



Eskola Politeknikoko arduradunen ustez, egun historikoa izango da.

beziaren arazoa murriztu ahal izateko unibertsitate eta industriaren arteko elkarlana gehitzeko dauden bide desberdinak eztabaidatzea da. Konferentzia horren bidez, parte hartzaileek ideien eta esperientzien elkartrukaketa egin eta hezkuntza, heziketa eta ikerketa gaiak eztabaida-

tzeko aukera izango dute.

Hala ere, esan beharra dago, “Comett”en beste urratsik ezagutzen dela Euskal Herrian. Programa abian jartzean, unibertsitate eta enpresen arteko formazioa bultzatzeko, Europako Elkarteak AUEF izeneko 205 elkarte eratu zituen Europa guztian

eta hain zuzen ere, Donostian dago elkarte horietako bat. Horregatik, asteartean egingo den konferentziaren bigarren ekitaldia Donostian izango da.

Baina gainera, bide batez egun berezi hori aprobetxatu nahi izan da Eskolan eraikin duten edifizio berriaren inaugurazioa egiteko ere. Eraikin horretan, Saiolaneko ekintza berriak jarriko dira eta bestalde, goi mailako injineritzako klaseak ere bertan emango dira. Edifizio berria 600 miloi inguru kostatzen da eta 1992ko abenduan hasi ziren eraikitzen. “Comett” konferentziak zein eraikin berriaren inaugurazioak, jende esanguratsua erakarriko dute. Konferentziara, hainbat tokitako jendea etorriko da, 300 lagun gutxigora behera.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

## FELIPE MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



## IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994 - 95 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994 - 1995 ikasturteari begira

✓ Haur Hezkuntza

✓ Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

✓ Hezkuntza musikala

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 71 41 57 ESKORIATZA



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia Tfnoa: 77 14 24

# Arau osagarriak alegazio epean

Ekainaren amaiera arte luzatu da Arau Osagarrien kontrako alegazioak aurkezteko epea, gaiaren garrantzia dela eta interesatuek hala eskatuta. Arau hauek Arau Subsidiarioak inguru urbanizaezinen gainean gehiago zehazteko egiten dira, eta orain arte landutako proposamenaren gainean hainbat alegazio aurkeztu asmo dute baserri-auzoetako bizilagunek eta baita ekologistek ere.

Baserritarrek eskaera partikularrez gain, sindikatuen bitartez guztiei eragiten dieten gaien inguruan ere aurkeztuko dituzte alegazioak. ENHE sindikatuak baserriaren etorkizunaz kezka sortzen dioten puntuak aipatzen ditu bereziki, "lurra klasifikatzea ondo dago, baina puntu batzutan kontraesanak ikusten dira" esanez. Hori dela eta, erabakien zentzua ulertzeko bilera eskatu dio Udalari.

ENBA sindikatuak ere aurkeztuko ditu alegazioak, baserritar partikular batzuek izenean batzuk, eta orokorrean berriz, arbola landaketarako lizentzia eskatzea bikoiztu egiten delako, bi inguruetan sua egitea galaraztearen kontra eta baserriak eraikitzeko araudia dela eta. Orain erabakitzen denak baserritarren etorkizunean zeresan handia izango duela esatean bat datoz sindikatu biak.

EKI ekologista taldeak, Arrasate barruko kaminoen gainean, erreka-sarearen babesaz, paisaiaren eta gune arkeologikoen babasaren gainean, kanteren araudiari buruz eta



Auzoetan eragingo dute arau osagarriak.

Etxezarreta inguruaz aurkeztuko dituzte alegazioak. Arau hauen testuan Maltzaga-Urbina eta Abiadura Handiko Trenaz Udalak jarrerarik ez hartzea ere kritikatzeko dute ekologistek.

Alegazioak aztertu ondoren, batzordeetatik eta plenotik pasako dira arauak eta behin behineko onespeneren ondoren, Diputaziora eramango da gaia.

## Babesetxearen araudia

Edozein arrazoiengatik ohizko bizilekua utzi behar duten pertsonentzat, bai emakume zein gizonezkoentzat Arrasateko Udalak jarri duen babesetxea eskaintzeko, honako arrazoi hauek izango ditu kontutan.

Batetik, bizi duten egoeratik, famili girotik irten beharra izan edota tratatu txarrak jasan eta jasateko arriskua duten emakumeei eskeinitako zaie babesetxea. Ezbeharren baten ondorioz etxebizitzarik gabe geratu diren familiek ere izango dute aukera; eta azkenik, sarrera batzordea bezala ezagutzen den taldeko arduradunek baloratutako beste kasu berezi batzuetan. Hori bai, zerbitzua erabili nahi dutenek, Arrasaten erroldaturik egon beharko dute. Gainera, babesetxean ezingo da inor hiru hilabetetik gora egon. Sartzeko eskabideak, berriz, Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dira eta larrialdietako egoeratan, udaltzaingoa edo Ertzaintza izango dira erantzuna emango dutenak.



## URONDO

### elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Ferixalekuan ordeztu, beste toki batzutan emango da botoa

Ferixalekuko ikastolan obrak egiten ari direla eta, orain arte Ferixalekuan botoa eman dutenek, datorren ekaianaren 12an beste toki batera hurbildu beharko dute. Jarraian ageri da, bizi zaretan kalearen arabera, nora jo beharko duzuen botoa ematera.

Gainontzeko mondrautarrak, ohizko tokietara joan beharko dute: San Antolin ikastolara, San Andres ikastetxera, Erguin ikastolara, Iokin Zaitegi ikastolara edo

Santamainako auzo alkateztara.

Albistea idaztean, errolda edo zentsoa Udaletxera heldu gabe zegoen arren, iazko datuei begiratu ezker, gutxigora-behera 20.553 arrasatearrek izango dute boto-erabakia.

Aurten Arrasaten, botoa emateko 30 mahai jarriko dira eta goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara izango dira zabalik.

Bukatzeke gogoratu, ARRASATE PRESSEK ere lan egingo duela hauteskunde egunean. Beraz, astelehen goizean, hauteskundearen emaitzei buruzko orria aur-

kituko duzu ohizko kioskoetan. Gainera, ATBK ere emaitzak jakin bezain azkar, hauteskunde berrizko programa berezia eskeiniko du igandean, gaueko 10etan.

**ABAROA JUBILATU ETXEA**

**KALEAK**

Alfonso X. Jakintsua Plaza  
Arrasate Pasealekua  
Biteri Etorbidea  
Garibai Etorbidea  
Garro Generala  
Gipuzkoako Etorbidea  
Iokin Zaitegi  
Iparragirre Plaza  
Jose Maria Eguren Plaza  
Kontzezino  
Kontzezino Kale Estalia  
Maala  
Nafarroa Etorbidea  
San Bixente Ferrer  
Zaldibar  
Zaldispe - Baserriak  
Zerkaosteta

**UDALETXEKO PLENO ARETOA**

**KALEAK**

Arrasate Pasealekua,  
Erdiko kale  
Ferrerias  
Gazteluondo  
Herriko Plaza  
Iturriotz  
Jose Letona Enparantza  
Kanpatorpea  
Olarate Kantoia  
Zeharkale Estalia  
Zurgin Kantoia

**MONTEIRON JAUREGIA**

**KALEAK**

Bizkaia Etorbidea  
Villa Tranquila  
Barrenacho  
Casa Mina  
Ignazio Zuloaga  
Marko-Alde Kalea  
Olarate  
Olarate Lizentziatua  
Pablo Uranga  
Zarugalde  
Meatzerreka

**Mahaiburua**

Erabakita daude, botoa emateko jarriko diren mahaietan, mahaiburu, mahaikide eta ordeztuok izango diren izenak, zehazki 9 lagun mahai bakoitzean. Udaletxean egiten den zozketa bidez aukeratzen da nortzuk egongo diren mahai elektoraletan. Guztira 270 lagunek begirale modura lan egingo dute domekako hauteskundeetan. Honako hauek izango dira mahaiburua:

**Ana Abarrategi, Valentín Moreno, Pablo Joanes, Arrate Maiztegi, Mari Jose Villar, Milagros Ortiz de Mendibil, Itziar Ibabe, Mikel Madinabeitia, Jaime Ugarte, Juan Jose Arana, Ricardo Lopez, Alicia Barreras, Miguel Angel Martinez, Jaime Hernandez, Pello Urizar, Manuel Ayape, Florencio Martinez, Begoña Arbizu, Julio Muñoz, Angel Luis Amutxastegi, Olga Perez de Arenaza, Amaia Beitia, Julio Mendizabal, Diego Arriaran, Eduardo Ruiz de Eguino, Antonio Javier Andres, Martin Sola, Iñaki Irizar, Alfredo Martin eta Jose Mari Kruzelaegi.**


## MURUAZPI SAGARDOTEGIA

San Inazio, 25 - Legazpi • Tf. 73 33 26



### MENUAK SAGARDOAREKIN

- Menua 895 pezetetan, astelehenetik ostiralera.
- Kaxuelatxoak, entsaladak.
- Afari merkeak.
- Egunero irekiko dugu, astearteak ezik.
- Aurrez eskatuz gero, oilaskoak edo arkumea egurrezko labean.
- Igandetan, 11etatik 1era hamaietakoak.



Hona hemen San Juan jaiak iragarriko dituen kartela **Cesar Cimianok**, “**Txifisek**” egina. Laster batean Arrasateko kale eta tabernetan protagonismoa hartuko du irudi honek.



**Iparraldeko 70 bat neska mutiko bisitari izan ditugu aste honetan Arrasaten. Udalako Ingurugiro Eskolan eta Azatzan daude astea pasatzen. Hegoaldea etortzen diren**

**lehen aldia da eta aste osoan zehar inguruko herriak eta ikastolak ere bisitatu dituzte. Seaskatik datozen neska mutil hauek, ARRASATE PRESS eta ATBn ere egon dira.**



**Susana Mangana** arrasatearra eta **Luis Bermudez** uruguaykoa San Andresko elizan ezkondu ziren maiteztean. Ezkon bidaian Italiara joan dira. Egipton ezagutu zuten elkar eta bertan, El Cairon bizi izango dira aurrerantzean. Zorionak!

**ESLU**  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## IZEN PROPIOAK

● **Iñaki Mendiguren**, 39 urteko arrasatearrak, beste 10 lagunekin batera Eliza arteko biblia itzuli du. Bibli elkarte batuak eskatuta egin dute itzulpen lana. Itzulpen proiektua 1978an hasi zen, orduan Itun Berria itzultzen hasi ziren eta 83. urtean argitaratua izan zen. 1986an Itun Zaharrarekin hasi eta 94an bukatu dute. Esan baharra dago, azken 8 urte hauetan Itun Zaharra itzultzeaz gain, Itun Berria moldatu egin dutela, beraz, Biblia osoa dago itzulita dagoeneko. Bibliaren auzkezpena, ostiralean izan zen Donostiako Miramon jauregian.

● **Diara enpresak** diseinatutako "Century" modeluko autobusa saritua izan da Ingalaterran. Urteko automobilaren saria jaso du. Autobusa Diaran diseinatu dute eta Ormaiztegi Irizar autobus enpresak egin du.



**Jose M<sup>o</sup> Ormaetxeak**, kooperatiben sortzaile ezagunak, eta beste lau enpresarik, Juan Celaya, Estanislao Garavilla, Angel Iglesias eta Ramon Vizcainok, omenaldia jaso dute aste honetan. Enpresa munduan izandako merituengatik, eta era berean, sektore desberdinetako ordezkari gore-

nak eta esanguratsuenak direlako omenatu dituzte. Omenaldia Euskal Herriko Marketing Institutoak eskeini die eta euren esperientzian oinarrituta, liburu bat idatzi dute. Ostegunean liburuaren aurkezpena eta omenaldi ekitaldia egin zen ostegunean Bilbon.

**Jose Zarraoa**k Hontz txiki bat aurkitu zuen Mallabin. Jaio berria da eta ia ez daki hegan egiten. Hontza zaintzen ari da Jose; jateko haragia ematen dio: galeper tripak, oilaskoa, esne-zopak... Ondo jaten du eta haundiago egin arte zaintzen jarraituko duela esan digu; baina gero, indarra hartzen duenean, aske uzteko asmoa du.



lurrindegia  
perfumeria

**ZARRAOA**  
**EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

*Mendi*  
*taberna*



**MENDI DA ZURE ETXEA**

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54

# LORAMENDI KIROLAK



**AUKERA ZABALA  
TENIS-BADMINGTON-SQUASH-  
FRONTENIS...EAN**



**INTERSPORT**

## II. AUZOLANDEGIAK IPARRALDEAN

✓ Aurtengo auzolandegiak SEASKAK Kanbon duen Kalbador Ikastetxean izango dira.

✓ 3 txanda antolatuko dira: uztailaren 31tik 17ra.  
uztailaren 17tik 31ra.  
uztailaren 31tik abuztuaren 14ra.

✓ Matrikularen prezioa 15.000 ptakoa da.

✓ Izenak emateko epea ekainaren 28ra arte.

✓ Edozein lan egiten dakien jendea behar da.

✓ Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara, eta arratsaldez Iparraldea ezagutu.

✓ SEASKAri lagundu, Iparraldea ezagutu eta giro jator eta euskaldunean 15 egun igaro gura badituzu, zatoz berandu baino lehen AED elkartera edo dei egizu 77 12 28 tfnora.

**AGUDO IBILI!!  
PLAZA MUGATUAK**



HEGOMAYE TALDEA



Auzolandegi hauek AEDko Gazte Mobidak antolatzen ditu, Arrasateko Udala, Gipuzkoa Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.



# Gaitzizenak: gorde beharreko altxorra

Arantzasu Loidi

**Ahozko hizkeraren sorrarekin batera hasiko ziren seguruenik. Komunikazio-premien, pertsonak bereiztu beharrenden eta herritarren bizitasun, burla eta pikareskaren fruitu dira. Edozein modutan ere, herriaren historiaren zati bat, eta galduaz doan ohitura. Izen horien bilduma egin nahi izan du Udaleko Euskara batzordeak, eta Jose Angel Barrutiabengoak hartu zuen horretarako sortutako bekaren ardurara, Raquel Romero filologoa gasteiztarraren laguntzaz, euskarari dago-kionez. Lana bukatuta dago, eta aurki aurkeztuko da Udalean.**

Jose Letonak baturik zituen gaitzizenetatik hasi zen Barrutiabengoak bekak agindutako bilketa lana egiten. Urtetan zehar batuak zituen izen mordoska bat berak ere. Adineko jendearekin hitz egiteari ekin zion eta gogoratzen zituzten gaitzizenak idatziaz

joan ziren. Jubilatuta pila batekin hitz egin du, euren gomestazioetan irteten zuten gaitzizenak batzeko.

Muga moduan 1964a jarri zuen, urte horretatik aurrera jende multzo handiak etorri ziren eta kanpotik, eta bakoitzak ekarritakoak herriko berezko gaitzizenekin nahasteko arriskua zegoelako. Historian atzera eginda, XV. mendean aurkitu ditu lehenak (Asote, Galbar, Juanikote eta Motela). XVII. mendean baserri izenak dira nagusi, orduan sortuak baitira baserri gehienak. Horretarako aztar-ka handia egin behar izan du artxiobotan, Udaletxeokan eta Parrokiakoan. Mila eta ehun gaitzizen inguru batu du azkenean.

## TRASMISIOA ETA BEREZKO GALERA

Gaitzizenen inguruko erreflexioak eginez hasten da lana. Lehengo testuan jatorria, transmisioa eta gaitzizenen ezaugarriak jasotzen dira. Gaitzizen zerrenda ere egiten da, alfabetu ordenan, eta amaieran, gaitzizen bakoitzaren fitxa, azterketa seman-



Herritar guztiek elkar ezagutzen zuteneko Arrasate.

tikoa, jatorria, pertsonaiaren benetako izena eta gainerako oharrak jarri dira.

Gaitzizenak urteak behar ditu jendearen memorian geratzeko, "ontzeko", ardo onak bezala. Berez galtzea, berriz, erabiltzeari utzi zaiolako, gaitzizenaren jabeak herritik alde egin duelako edo berak desagerpena nahi duelako izan daiteke. Edozein kasutan ere, historian lokalizatuta dauden gaitzizen askoren arrastoa galdu ere egiten da atzerago.

## GORDE ALA AHAZTEN UTZI?

Gaitzizena duten mondrauetar gehienek naturaltasunez onartu eta graziaz hartzen dutela ohartu da lan honen egilea. Hala eta guztiz ere, Letonak berak ere arzoak izan zituen herrian gaitzizen batzuk argitaratu zituztean, eta inondik ere euren gaitzizena jaso nahi ez duten herritarrak ere aurkitu ditu. Gaitzizena eurekin batera



**aitzizena duten  
mondrauetar  
gehienek  
naturaltasunez  
onartu eta  
graziaz hartzen  
dute.**


desagertzea nahi luketenak eta ikertzailea modu txarrean hartu dutenak ere badira. Horrelako kasuetan ez du pertsonaren izenik jarri. "Nire asmoa ez da inondik ere inorekin haserretzea, eta horregatik oraingoz lana ez da argitaratuko, denbora apur bat pasa arte, baina horren lekukotza jasota gera dadin nahi izan dut, denborak eraman ez dezan, inor mintzeko gogo barik eta dokumentu moduan". Barkamena eskatu nahi die mindurik sentitu direnei eta "gaitzizena ez dela inoren jabetzakoa, herritarrek emaniko eta erabilpen publikoko zerbait baino" gogora ekarri.

**GAITZIZENAK HISTORIAN ETA GAUR**

Garai baten "herriaren arima" zirela ere esan daiteke, eguneroko bizitzaren lekuko garbia. Gure errealitatea, kultura, pentsamendua eta bizikiera hobeto ulertzen lagundu diguten altxorra dira gaitzizena, belaunaldiz belaunal-



**aitzizena ez da inoren jabetzakoa, herritarrek emaniko eta erabilpen publikoko zerbait baino"**



Jose Angel Barrutiabengoa.



Joxe Letona.

di ahoz transmititzen dena. Gaur egun nabarmen egin du behera gaitzizena jartzeko ohiturak, eta arrazoi sorta handia aipatzen da horretarako. Nagusia, beharbada, herria txikia izanik denek elkar ezagutzetik ezezagun izatera pasa izana. Denborak, eta belaunaldiz belaunaldi gaitzizena ez gordetzeak askoren galera ekarri du. Balore krisia aipatzen du Barrutiabengoak fenomeno honen inguruan, eta alfabetatzeak ere eragin duen arren, arrazoi ugari egon daitezke gaitzizena jartzeko ohituraren atzetik: "eskolatik elkar ezagutzen dutenek izen eta deiturak jakiten dituzte, masa kulturaren hedapena, inmigrazioen eraginez taldeak desnaturalizatu egiten direla, lanbideen desagertzea, familien dispersioa, industrializazioaren eragina, herri-gune handien sorrera, eta azken batean, bizimodu isolatu eta bakartiagoa, herritarrekiko harreman gutxiagokoa".

**GAITZIZENEN SAILKAPENA**

- **Pertsona bakarrarenak** (Ad. Txabolintero)
  - **Familiarenak** (Ad: Arbe)
  - **Familiatz gairidikoak** (lanbide edo auzoka)
  - **Komunitatearenak** (Bergararrak mokoluak, mondrauetarrak zerrajeroak...)
  - **Materialei buruzkoak**
  - **Burlazkoak**
  - **Estimazioa adierazten dutenak**
  - **Toponimiazkoak:** etxearen izena, leku izena
  - **Gaitzizena hutsak**
- **Esanahiaren araberrako sailkapena:**
    - Lanbidea
    - Pertsonaren izakera
    - Pertsonaren itxura
    - Toponimia
    - Antroponimia
    - Gertaeratan oinarritua
    - Taldea izendatzen duena



Guztira, mila gaitzizenetik gora batu ditu Barrutiabengoak.

# Zer esan nahi dute

**Batutako mila gaitzizen artean, asko dira informazio gutxirekin jaso direnak ere. Askotan ez dago pertsonaren izenaren erreferentziarik, beste askotan jatorria edo gaitzizeneren esanahia da ulertzen ez dena, euskarazkoa dela jakin arren (Aoxen, adibidez). Beste askotan, garbi dago hitza zein den, baina inork ez daki gaitzizena nondik dator kion, zergatik jarri zitzaion. Eta benetan izen kurioso eta politik daude horrela, "Jaungoikoaren amantala", esate baterako. Beste kasu batzutan, bertsio bat baino gehiago ere badaude.**

**Jatorriaren atzetik, kontu-txiki eta pasadizo asko entzun du Jose Angel Barrutiabengoak, zaharrek gustora gogoratzen dituztenak. Gaitzizena huskeria edo bitxikeria baten ondorioz jarritakoak dira, baino denek dute euren grazia, irakur bestela:**

- **Afrikan:** Pertsonai hark Colon izeneko Roneoko kargu baten semeari izena galdetu zion bihurrikerian harrapatu zuen batean eta Colon zela esan zionean, "Colón, Afrika deskubritu zuena bezala!". Aurrerantzean Afrikan deitu zioten hankasartzea egin zuenari.

- **Peixoto:** Brasilen, Florian Peixoto presidente zela denboraldi bat eman zuen modrauetarrari jarritako gaitzizena.

- **Agonia:** Ia hilean egon zen behin baino gehiagotan, pulmonia harrapatuta.

- **Barbantxo:** Zerrajerako Pertsonal Burua zen eta 1916an egin greban "nire etxean ez da garbantzu zaku bat falta izango baino zuenean..." esan ei zien langileei.

- **Doce Besos:** Andreagaia agurtzerakoan "hamabi musu" ematen zizkiola esan ohi zuen lagun artean.

- **Harrapa pajaros:** Gora begira ibiltzen ei zen beti, eta txoriak nola harrapatu pentsatzen zihoan itxura zuela bururatu zitzaion norbaiti.

- **Huracán:** Pelukeroa zen eta ilea mozten ari zenean, artaziei indartsu putz egiten ei zien, ileatxoak kentzeko edo.

- **Kristotxo:** Elektrizista zen eta berak, Jainkoak berak bezala, "Argia egiten" zuela esaten zuen sarri.

- **Napoleon I:** Harakina zen eta Frantziara eramateko txorizoak erosi ei zizkion behin norbaitek. Bere "txorizoak Napoleonek berak ere jaten zituela" esan ei zuen gero.

- **Neron:** Estazioko Jefe zen eta umeak jolasean

eta amorratu arazten izaten ei zituen inguruan. "Harrapatzen bazituen bizirik erreko zituela" esan ei zien batzuri.

- **Okotz:** Zerrajerako langile hark, okotza leihoko zapaldan jarrita hartzen ei zuen atsedean laneko tarreetan, eta okotza baino ez zitzaion ikusten.

- **Pipar:** Apustu baten ondorioz dozena t'erdi piperrin jai ei zituen, minetan minenak, Altxola tabernan.

- **Sopas:** Behinola Go-tzaia etorri zen Mondrauera eta pertsonaia horrek bazkaria prestatu behar zion. Denen harridurarako zopa eman zion, orduan pobreen janari kontsideratzen zena.

- **Surjana:** Sudur zati bat falta zuen, txiki txikitan seaskan zegoela txerri bategan jan zion eta.

- **Takarra:** Gazteluondon bizi zen eta kortak su hartu eta itxungi ezinik zebilenez, takarraran etorri zen kalean behera, lagun-tza eske.

- **Tolon:** Goxokiak saltzen zituen lekuan kanpai

bat zuten eta San Kristo-balkoarekin batera jo egiten zuten, desgraziaren baten berri emateko.

- **Tranpa:** Urez beteriko kupela Portaloitik Alondigara nork lehenago eraman jokatu zuen Pernilesekin eta aurreko gauean harea sartu zion harenari. Aprobant zehar harrapatu egin zuten tranpan.

- **Tren de las 3,30:** Santa Agedako gaixoa zen, larruzko pilotak egin eta elizpera etorri ohi zen haiek saltzera. Egutero oinez etortzen zen, pauso azkarrarean, eta beti 3.30etarako iristen zen.

- **Txerren:** Gaztetan jarri zioten gaitzizena, bihurrikeria asko egiten zuelako. Urte baten San Juanetako txafleroak lapurtu eta errekan arrainak harrapatzeko erabili zuen polbora.

- **Txiron:** Transportista zen eta karreratako auto bat Lasartera eramateko enkargua eman zioten Mendiatarrek. Kamioian kargatu eta Erdiko Kalean behera zetorrela, frenoak apurtu zitzaizkion eta abiada handian pasa zen Portaloian zehar. Luis Txiron karrerista brasildarraren oroimenez bataiatu zuten horrela.

- **Re-Re:** Tabernako atean gitarra jotzen jartzen zen, baina re-re, re-re baino ez zekien jotzen.

- **Polvora:** Zaragozara trenean zihoala, trena astiro nonbait eta aldaparekin haserretuta "mendia polboraz botako" lukela esan ei zuen.

- **Zeruko karterua:** Kartera zen eta senargaiak herritik kanpo zituzten neska gazteek gogo handiz itxoi-ten zioten, mutilen kartarik noiz jasoko.



1960an jarri da gaitzizenen muga.

# Iñaki Korta: "pilotariak bai, frontoirik ez"

**Pilota albiste bihurtu zai-  
gu azken aldi honetan  
arrasaten. Batetik gure  
pilotariek herri arteko  
txapelketan finalerdietara  
heltzea lortu zuten eta  
bestetik frontoi berria-  
ren auzia dago. Denbo-  
raldiaren amaieran Iñaki  
Kortarekin berba egin  
dugu.**

- Aurtengo denboraldiari  
buruz, ze balorazio egin de-  
zakezu?

- Kirol arloan oso pozik  
gaude. Euskal ligan bi or-  
dezkarri sartzea lortu genuen,  
Gipuzkoako kopan kadeteak  
finalera heldu ziren, afizionatu-  
en finalera ere bai. Eta azke-  
na, herri arteko txapelketan,  
15 urteren ondoren, finaler-  
dietara heldu gara. Guzti hori  
kontutan izanda, pozik egote-  
ko moduan gaude.

- Zer esan nahi du finaler-  
dietara heltzeak?

- Herri arteko txapelketa  
txapelketarik garrantzitsuen-  
da. Alde batetik taldea balo-  
ratzen da, bestetik herrian  
mugitzen den jendea dago.  
Beraz, ez du kirol zentzua  
bakarrik, horregatik txapelke-  
ta berezia da guretzat.

- Zenbat pilotari zaudete?

- Guztira 70 bat gaude.  
Jendeari dagokionez oso gus-  
tora gaude. Gainera, herri  
gutxitan aurki dezakegu Arra-  
satek duen pilotari mordoia.  
Harrobi sendoa dugula ikus-  
ten ari gara, kalitate eta kanti-  
tate ona benetan.



Hauek talde nagusiko pilotariak dira. Arrasaten guztira 70 bat daude.

- Pilotari gazte horiekin  
zenbat jende dabil?

- Bi entrenatzaile ditugu,  
baina honez gain, zuzendari  
batzordekoak eta batez ere,  
gurasoak dira mugitzen dire-  
nak. Laguntza horri esker hor  
goian dugu pilota.

- Zer laguntza mota jaso-  
zen duzue?

- Kirol subentzioa eta gero  
txandalak Arrasate Kirolak  
eta Ejido bitartez atera ditu-  
gu. Inoiz mugitu behar badu-  
gu rifekin etabar, gu mugit-  
zen gara. Gainera, beste he-  
rri batzutan ez bezala, sarre-  
rekin ezin dugu ezer atera,  
Iturripen ezin duzu sarrerarik  
jarri, instalazio egokirik ez du-  
gulako. Beraz, dirua ateratze-  
ko bide hori ere, itxita dugu.

**FRONTOI BERRIAREKIN  
ZER?**

-Profesionalerara pasatze-  
ko, beharbada, instalazio  
hobeak beharko lirateke?

- Bai, jakina. Lehenengo  
argi dago afizionatu mailan  
ondo ibili behar dugula eta  
ondo ibiltzeko instalazioak  
derrigorrezkoak dira. Heldu  
garen mailara ditugun insta-  
lazioekin heldu bagara, meri-  
tu haundia daukagu. Astearte  
eta ostegun ilunkadan entre-  
natzera joaten gara, eta euria  
egiten badu, Iturripen ez dago  
entrenatzerik. Atera kontuak,  
beraz.

- Zelan dago frontoiaren  
auzia?

- Beltz, oso beltz. Uler-  
tezina da hasieran frontoia-

ren proiektua onartzea, eta be-  
rehala atzera botatzea. Eta are  
eta ulergaitzagoa, alegatzen  
dituzten arrazoi tekniko eta  
sozialak ulertzea. Arrazoi te-  
knikoek ez dute zentzurik,  
metro gutxitara etxe bat egin  
baitute. Lehenengo horma  
egin behar dela dio EAJK,  
baina etxea egiteko ez du ait-  
zakirik jarri. Eta arrazoi so-  
zialak, batek daki zer ulertzen  
duten arazo sozializat.

- Zer funtzio beteko luke  
frontoiak?

- Frontoia ez da pilotari  
dagokion gauza bakarrik.  
Frontoia ez da talde batentzat  
izan behar, herriarentzat bai-  
zik. Bertan, pilota partiduez  
gain, gimnasia erritmikoa,  
herri kirolak, jaialdia... de-  
netik egiteko aukera izango  
litzateke. Gainera, kontutan  
eduki behar da herriaren er-  
dikaldean ez dagoela kirola  
egiteko lekurik, bertako jen-  
deak Musakola edo Iturripera  
joan behar izaten du.

- Nolako izaten da jendea-  
ren erantzuna?

- Oso ona, txalotzeko mo-  
dukoa. Jendea gurekin dago,  
bai kirol mailan eta baita fron-  
toiaren auziaren aurrean ere.

- Baduzu zeozer gehiago  
esateko?

- Jendeari eskerrak ema-  
tea gustatuko litzaidake eta  
bereziki, Segurara finalerdiak  
ikustera joateko autobusa an-  
tolatzen lagundu zigun anoni-  
moari. Mesede galanta egin  
zigun.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TFNOA: 79 19 21

**PEÑAKOBA**

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
ARRASATE  
Lizaur Arkitektoa  
Tfnoa: 78 25 60  
OÑATI

**PENALTIAK**

● Udako kirolak egiteko epea zabalik dago, dagoeneko. Ekintza gehienak bi txandatan banatuko dira: lehen txanda ekainaren 27tik uztailearen 8ra izango da. Bigarrena, berriz, uztailearen 11tik uztailearen 22ra. Partaide guztiak erantzukizun zibileko aseguruia izango dute. Bestalde, Aukeako bazkideek prezio guztietan 500 eta 2.000 pta bitarteko beherapenak izango dute. Izena emateko epea, lehen txandari dagokionez ekainaren 17an bukatuko da, bigarren txandarako epea ekainaren 30ean. Beraz, izena eman nahi duzuenok Aukeako bulegoetan edo Gazte Zerbitzuan egin dezakezue. **Ordutegia: 9etatik 12etara, 4etatik 6etara.**

● Eskoriatza-Arrasate krosetako emaitzak hauek ditugu: lehen postuan Jose Apalanza, 2. Ramon jausoro, 3. Santi Gonzalez. Gizonezko beterranoetan; irabazlea Enrike Kabiketa eta 2. Jose Galan. Gizonezko Juniorretan; lehena Aitor Atxa, 2. Jon Gonzalez. Emakumezkoetan lehena Usoa Sorazu, 2. Rosi Talavera. Emakumezko beterranoetan Eugenia Gonzalez eta Lourdes Mariezkurrena. Juniorretan Amaia Gaztañaga.



Saez de Viteri jokalaria ezik beste guztiak joan dira Pontevedrara.

# Arrasate Saskibaloi Taldea Pontevedran

**Arrasateko** saski baloi taldeko jokalariek Galizia aldean ditugu, Pontevedrako Villagarcia de Arosan konkretuki. Lehen mailara igotzeko liga jokatzeko asmoz, ostegunean joan zitzaizkigun, eta dagoeneko, lau neurketa jokatu di-

tuzte baina zorte haundirik gabe. Lehen erronka domekan izan zuten, Gironako Santfeliuenc taldearen kontra, emaitza (69-100) kataluniako alde. Astelehenean, Arrasate eta Galiziako Concello de Portas izan genituen aurrez aurre, emaitza

(57-90), galdu berriz ere. Asteartean aurrean izan zuten taldea Universidad de Salamanca izan zen eta porrot berria jaso zuen arrasateko taldeak (63-78). Asteazkenean Madrileko Bansander taldearen kontra neurtu zituzten indarrak, oraingoan ere ezin irabazi (65-63). Ostegunean beste neurketa izan zuten valentziako Sonita Godela taldearen kontra baina erre-dakzioa izteko ordua oraindik partidua jokatzeko ari zen. Ostiralean goizeko 12.15etan Arrasate eta Caleta Fuste Antigua taldeak neurtuko dituzte indarrak eta larunbatean azken neurketa jokatu dute goizeko 10etan Santa Adela-Motriren aurka. Une honetan arrasateko taldea sailkapeneko azken tokian dago, ez baitu partidurik irabazi, baina falta zaizkion neurketetan zorte hobea izatea espero dugu.

**URIBE AUZOKO TORNEOA**

- Bodisca 0 - Txeyenex (\*) 4
- Corinto taberna 4 - Hirei (\*) 4
- Lo + X 1 - Belo eta Txapi (\*) 4
- Stocker's (\*) 3 - Borrock'n roll 2
- Sorgol (\*) 2 - Jo ta akabau 2
- Equus (\*) 4 - Semen up 3
- Berango sukai. 1 - Los Dimy (\*) 2
- Nuevo taberna (\*) 9 - Fancy bois 2

**(\*) Final laurdenetarako sailkatuak**

**DATORREN ASTEKO PARTIDUAK**

- Larunbata 11**  
**Iturripe A**  
 11.00 Nuevo taberna - Stocker's  
 12.00 Hirei - Los Dimy
- Iturripe B**  
 11.00 Sorgol - Equus  
 12.00 Belo eta Txapi - Txeyenex

**UGARAN**  
 jatetxea

# Udan ere osasuntsu

“Mirakulu dietak” ez dira existitzen. Udaren atarian gauden arren, jarraian doazkizuen gomendioak, urte osoan zehar jarraitu beharrekoak direla dio Esther Telleriak, elikaduran adituak. Lerro hauen bitartez, kilo batzuk gainera kentzeaz gain, osasuna hobetu ere egin daiteke.

- Argalago egoteko, normalean jaten denaren erdia jaten hasi behar da.

- Lehenengo platera, bigarrena, ogi zatia eta postrea, esnekia edo fruta jan behar da. Pertsona bakoitzaren loditasunaren arabera, esnekia ken daiteke.

- Koipe kantitatea neuritzea oso garrantzitsua da: mantenimendu dietan, 2 edo 3 goilarakada kontsumitu daitezke eta argaltze dieta batean, 2 bakarrik.



Ariketa fisikoa beharrezkoa da.

- Koipe kopurua mugatuz eta elikadura ikuspuntutik kaloria hutsak diren jakiak ebittatuz ( pasteleria, goxoki industrialak, estekiak, alkohola...) jendeak pisua galtzen du.

- Ez dago mirarizko dietarik: Dieta azkar horiekin lortzen den gauza bakarra ura galtzea da eta ohizko moduan jaten hastean, pisua irabazten da berriro.

- Ariketa fisikoa egitea komeni da. Argaltze dietak beti joan behar dira ariketa fisikoekin tartekatuta, gastu kaloriko handia gertatzen baita. Ariketa fisikoak egiten direnean, jaten denaren eta erretzen denaren arteko diferentzia beti izaten da handiagoa, beraz, errezago argaltzen da.

- Mantenimenduaz lagundu behar zaie ariketa fisikoei. Normalean, gure metabolis-

moa makal samar egoten da eta gure giharreak ahuldu egiten dira urteen joan etorriaz; ondorioz, normalean kontsumitzen dugun kaloria kopurua jeitsi egiten da. Ariketa fisikorik egiten ez bada, gure giharreak gehiago atrofiatzen dira eta kaloria gutxiago kontsumitzen dugu.

- Egutero ordubeteko ariketa fisiko lasaia egitera ohitzen bagara, gure pisuari eta giharre-masari eutsi egingo diogu. Ariketa fisiko hori, pasiada bera ere izan daiteke.

- Ariketa fisiko arina izan behar du: emakume askok “footing”a egiten dute eta hori, askok jakin ez arren, ez da ona emakumearentzat: “Footing”ak bihotzari esfortzu handia eskatzen dio.

**ESTHER TELLERIA  
SENDAGILEA**

## MULTISOL, MODAK ZURI BEGIRATZEN DIZUNEAN

BEGIRA IEZAIOSU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONEMEKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU. IKUS DEZAZUNI EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU.

**Ereko ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.**

**GARANTIA OSOA**  
**1.950 pta.n**

*Luzanaga*  
OPTICA  
MULTIOPTICAS  
BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

BETAURREKOAK EROSTEAREN TRUKE KAMISETA POLIT BAT OPARITUKO DIZUGU.

INDARRAK ELKARTZEKO  
GARAIA DA



**EMAN  
BOTUA**



**EAJ  
PNV**






Garibai, 9 ARRASATE

Tfnoa: 79 15 03

FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu osoa

# a, eme... interiores



# a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



# AEDren auzolandegiak: Iparraldea bizi izateko aukera

Zabalik dago Kanboko Xalbador ikastolako auzolandegietarako matrikula epea. Dakizuenez, AEDko "Gazte Mobida" k sortutako inizatiba da hau. Beste batzuen artean, inizatiba honen helburua Seaska erakundeari laguntzea, lan kulturaren bitartez euskal helburu bati zerbitzen ikastea eta duela 25 urte hegoaldean egon zen ikastolen egoera, gaurko iparraldeko ikastolen egoeraren parekotasunagatik ezagutzea da.

Auzolandegiok AEDk eta Seaskak antolatu dituzte baina Arrasateko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Akitaniako Kontseiluaren laguntza, ezinbestekoa izan da.

## ZER DA "AUZOLANDEGI" BAT?

Horixe da argitu beharreko lehenengo gauza. Auzolandegi bat, lana eta aisialdia uztartzen diren oporraldia da. Lana ordainbakoa izaten da eta lan egitearen truke, gazteek euren egonaldia merkeago ateratzea lortzen dute lo egin eta bizi izateko azpiegitura, lana egiten den erakundearen kontura baitoaz. Lan oporraldi hauetan, lana egiteaz gain, pertxerantzailerak Iparraldeko kultura, lekuak eta jendea



Auzolandegiak: lanean baina oporretan.

ezagutzeko aukera izaten dute.

## ARDUREN BANAKETA

Seaskak, lana egiteko tresna eta baliabide guztiak jarriko ditu. Horretaz gain, bere kargu egongo dira aterpea, komunak, logela eta sukaldaritzako azpiegitura. AEDren kargu hiru txanden antolaketa egongo da. Horretaz gain, hara joan aurretik arratsaldeko planak zehaztea eta lotzea ere elkartearen kargu geratuko da. Gazteon artean erreferentzia izango diren arduradunak ere AEDk jarriko ditu.

Partehartzaileek euren aldetik, lanerako jantzi aproposak eraman beharko dituzte eta

finkatuta dagoen matrikula ordaindu beharko dute. Arrasateko Udala, bidaiaria, aseguruia eta publizitateaz arduratuko da eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak, gazteek euren matrikulekin ordaindu ezin duten mantenerako laguntza luzatuko dute. Auzolandegien kostu orokorra, 4.465.000 pta.koa da.

Hiru txandatan banatuko dira: Lehena, uztailearen 3tik 17ra; bigarrena, 17tik 31ra eta hirugarrena, uztailearen 31tik abuztuaren 14ra. Txanda bakoitzean 30 lagunek hartuko dute parte eta horietaz aparte, AEDk izendatutako bi arduradun joango dira.

**Auzolandegiak, 3 txandatan antolatu dira eta matrikula epea ekainaren 28an amaitzen da**

## BETEBEHARREKOAK

17 urtetik gorakoa izatea derrigorrezkoa izango da; adin horretatik aurrera ez dago mugarik. Matrikularen prezioa 15.000 pta.koa da eta izenematea ekainaren 28a baino lehen egin behar da.

AED elkartek adierazi duenez, aurtengo auzolandegietarako "boom" handia espero da eta lagun gehiegik izena emango balute, aukeraketa bat egin beharko du elkartek. Aukeraketa horretan, arrasatearrek lehentasuna izango lukete eta ondoren, Deba Garaiko gainontzeko lagunak. Lan ezagutza edo esperientzia konkretuak izatea, sukaldaritzan jakitea, karneduna eta kotxeduna izatea eta euskaldun berria izanez gero euskara hobetzeko duen aukera ere baloratuko dira.

Inizatiba hau ez dela auzolandegietara soilik mugatzen argi utzi nahi izan du Gazte Mobidak: talde honen barruan dagoen "Hegoaxe" taldea, iparraldekoekin harremanak estutzen aritzen da eta horregatik, "Iparhaize" antzeko bat sortzen saiatzen ari direla adierazi dute.

Egia esan, aurreko urteko auzolandegietan egon ziren lagunak, oroimen ahaztezina ekarri zuten Arrasatera, langileen artean bertan sortzen den batasun eta giroa, erabatekoa izaten baita.

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**PEUGEOT - TALBOT**  
Salmenta eta zerbitzua  
**IBABE GARAJEA**  
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**  
Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07



Udalako pilotalekuan, orain 42 urte inguru.

**B**

aserri gehientsuetan izaten zuten sasoi baten astoa, lane-

rako lagun zintzo eta fina. Udalako baserrietan ere hala behar zuten inolaz ere, eta auzoko mutiko kuadrila bati honela atera zien erretratoa Jose Mari Lasagabasterrek, domeka edo jaiegunen batean.

Udalan beti egon izan da pilotarako afizio handia, eta inguruko mutikoeak bertako frontoian ikasten zuten pilotan. Egun hartan ere pilotan

eginda izango ziren kuadrila honetakoak. 42 urte inguru izango ei dira argazki hau atera zirela. Udalako frontoiaren gainekaldean ageri dira, domekako erropekin eta argazkilariari begira, zintzo. Astoak, Palazio baserrikoak, itxura denez.

Ezkerretik hasita, **Luzio Zubia** (Garaiko Txiki baserrikoak) bere ondoan **Iñaxio,**

Arretxen familiarekin egoten zen mutiko tolosarra, bertako alabaren semea. Astoaren gainean, **Patxi Zubia** (Liorra baserrikoak), alboan **Luis Barandiaran** eta **Jose Mari Barandiaran** (Garagartzako Artiakoak). Astakumearen gainean **Felipe Garai** (Biazkoa baserrikoak eta bere alboan **Karmelo Abarrategi,** Sahatsa baserrikoak.



umezaintza

Datorren ikasturterako

94EAN JAIOETAKO HAURRENTZAKO PLAZAK LIBRE

79 01 02

SAN ANDRES, 8



*Udal Euskaltegia*  
*Arrasateko Udala*

## UDAKO IKASTAROA 94

**Ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte**

- ✓ 5 ordu goizez
- ✓ Maila guztiak
- ✓ Matrikulaldia:

Ekainaren 1etik 17ra arte

- ✓ 16 urtetik gorakoentzat
- ✓ Beka Sistema ere badaukagu
- ✓ Informazio zehatzagoa:

79 70 77 zenbakian

ARIMAZURI PLAZA, 2 TFNOA: 79 70 77 / 79 77 88 FAX: 79 91 43

## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**


**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

• AIPUA •

*Abolkuak gutxitan  
bartzien dira ondo,  
gebien behar  
dituenak nahi izaten  
ditu eta gutxien*

JOHONSON

• JEROGLIFIKOA •



Zer egin zenuten iazko ikasturtean

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9					10	
11			12		13	
14		15		16		
17			18			19
20			21			

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Galdetu. 8. Jabier, AEDko idazkari orokorra. 9. Ibai-arrain jangarria. 10. Nor pluralean. 11. (Ald.) Musika nota. 12. Euskal Herriko herrialdea. 14. Haginkada. 16. Ordena. 17. Arerio. 19. Alde hemendik. 20. Nafarroako ibilgailuetan. 21. Ugari.

**Bertikalak** 1. Alaitasun. 2. Hegazkintan zerbitzen duena. 3. Gehiegi. 4. Gipuzkoako udala. 5. Inmigrari. 6. Galioa. 7. Higuin. 10. (Ald.) Ikatz mota bat. 13. Amnesty International. 15. (Ald.) Gar. 18. Lehena bi aldiz.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Zure bizitzak 360 gradutako aldaketa behar du. Orain egiten ari zarenak ez du zentzurik.

**Taurus** Beti amaren poltsari begira. Noiz hasiko zara dirua irabazten?

**Gemini** Ordu askotxo pasatzen duzu telebistaren aurrean; liburuak irakurtzen haseta komeni zaizu.

**Cancer** Burusoil geratzen ari zara. Zergatik ez duzu ilea txanpu bereziaz garbitzen?

**Leo** Oso desordenatua zara eta hori zure lanerako oztopo da.

**Virgo** Gutxien espero duzuna zutaz maitemintzen ari da. Uda beroa datorkizu!

**Libra** Brasilen jaio izan bazina, futbolari ospetsua izango zinateke. A ze pena!

**Scorpio** Zikin itxura du zure anaiak. Norengandik ikasi ote du?

**Sagitaris** Jendea aspertuta bizi da, baina zurea kronikoa da.

**Capricorn** Baduzu dirurik oporretan joateko edo iaz bezala kreditua eskatuko duzu?

**Aquarius** Misteriozko historiak irakurtzeko ez zara gai ere. Kakati!

**Piscis** Aupa! Gero eta gutxiago falta da oporrak hartzeko.




**INDARRAK  
ELKARTZEKO  
GARAIA DA**

EMAN  
BOTOA




## OSKAR SAIZEN GOMENDIOA



Hirugarren munduaren egoeraz kontzientziatu eta laguntzea da Oskarren gomendioa, "kontzientziatuz gero laguntza ematea beharrezkoa baita". Han gertatzen dena gure arazoa ez dela eta guk zer egin dezakegun esaten dugu askotan, "baina herrialde horien egoera gure esplotazioaren ondorio da, eta ikuspuntu egoistatik begiratu ere, komeni zaigu herrialde horien aurrerapena". Gauza asko egin daiteke Oskarren ustez: "dirulaguntza ematea izan daiteke bide bat, hemengo diruaren balioa asko gehitzen baita han. Kontzientziazioan ere lan egin daiteke, eta batez ere erakundeei presio egiten". Eginkizun honetan aktiboki parte hartzea da bere gomendioa: "zor bat dugu, eta obligaziozkoa da ordaintzea".

## KOMIKIA



Txifi

ETXEPARE - BILINTX  
LIBURUDENDA

## Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

## PROGRAMAZIOA



- 12 Igandea**  
22.00etan  
"Hauteskundeak 94"
- 13 Astelehena**  
13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
"Kukaratxa Motel" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport Berezia: Saskibaloia  
22.00etan  
Pelikula Erraldoia: "Joshue eta Jerikoko gatazka"
- 14 Asteartea**  
13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
Mondrasport (errep.)  
14.05etan  
"Joshue eta Jerikoko gatazka" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBKetan  
22.00etan  
"Robokop"
- 15 Asteazkena**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
ATBKetan (errep.)  
14.05etan  
"Robokop" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Pareak Jokuan: IGP sistemaren iritziak.  
22.00etan  
Dokumentala: "Arnasketa; Birusak"
- 16 Osteguna**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Pareak Jokuan (errep.)  
14.05etan  
Dokumentala (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakararka  
22.00etan  
Euskal filma: "Zergatik Panpox"
- 17 Ostirala**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Bakararka (errep.)  
14.05etan  
"Zergatik Panpox" (errep.)  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete.  
22.00etan  
Haurren filma: "Arturo Erregea"

## SOLUZIOAK

Errepublikatu.  
JEROGIFIKOA  
AA.  
Nakatiz, 10. Turba, 13. Al, 15. Su, 18.  
3. Lar. 4. Deba, 5. Etorkin, 6. Ga, 7.  
Berrikal, 1. Gozamen, 2. Azafata,  
20. Na, 21. Amiz.  
14. Mañu, 16. Kiti, 17. Etsai, 19. Ur.  
ta, 9. Zarbo, 10. Ak, 11. Fa, 12. Araba,  
Horizontalak I. Galdegin, 8. Oze-  
GURUTZEGRAMA

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Donostian uda garaian** 2 etxebizitza alokagai. - Fermin Calbeton kalean: 2 logela eta 4 ohe. - Easo kalean: 2 logela eta 4 ohe. Tfnoak: 42 32 67 edo 42 45 02. Nati. (Bazkalorjuan).
- **Bilbon gela bat libre** baduzu, gustora alokatuko nuke. Dei egin 79 14 01 tfnora. Maite. (Gauéz).
- **2 ohedun logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokatzen da** San Andres auzoan. Tfnoa: 79 51 88.
- **Etxebizitza alokatzen da** Peñiscolan udako hila-beteetan. Tfnoa: 79 57 31. Juan Antonio. 6.30etatik aurrera.
- **4 ikasle etxebizitza** alokatu nahi genuke. Tfnoa: 83 34 09. Asteburutan deitu.
- **Pisua salgai.** 140 m2. Gorostiza auzoan. 4 logela, egongela, 2 komun, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.
- **5 lagunentzako pisua** alokatu nahi genuke Arrasaten. Tfnoa: 18 04 23. Harri.
- **Pisu bat osatzeko pertsona bat** behar dugu uztailetik aurrera. Gros. 25.000 pta. Tfnoa: 79 11 10 (gauéz edo arratsaldean deitu).
- **Bi logela ditugu** alokatzeko Aldai kalean, erdialdetik oso gertu. Merkeak dira. Tfnoa: 65 52 98.
- **Oporrak** etxe alai eta xarmant batean lo eginez igaro nahi izanez gero, zatoz zarautza. Tfnoa: 13 28 49. Ana. Deitu goizeko 10etatik 1era.
- **Pisu bat alokatuko genuke**, posible bada, Erguin inguruan. Tfnoak: (945) 28 52 13 (Amaia) eta 64 28 36 (Nagore). Asteburutan deitu.

- **Apartamendu bat salgai** Erguinen. Tfnoa: 79 22 12. Gauéz deitu.
- **Ezkarain pisu bat** alokatzen da uztaila eta irailen. Tfnoa: 79 31 56.

**Lana**

- **Neska** eskaintzen da etxebizitzak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **OHOk klase partikularrak ematen ditut** kurtso guztian zehar eta uztailen goizez eta arratsaldean. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **2. REMeko klase partikularrak** emateko prest dagoen pertsona bat behar dugu. Deitu 79 06 50 tfnora. Agustin.
- **Titulu eta esperientziadun pelukera** bat eskaintzen da lan egiteko. Orduka edo egun osorako. Tfnoa: 79 55 13.
- **Andra euskalduna** prest pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 55 13.
- **2. REM arte klase partikularrak** ematen ditut, ingeleza eta matematikak batez ere. Tfnoa: 79 13 01.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira. Irakasle kanadiarra. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.
- **Esperientziadun bi neska** eskaintzen dira uztailen eguerditik aurrera umeak zaintzeko. Tfnoak: 77 14 45 (Esti) eta 79 31 82 (Mertxu).

**Salerosketak**

- **MINI-CONVER karabana salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 88 83.
- **Txakurrak eramateko gurdia salgai.** Tfnoa: 79 11 36. Inigo. 8etatik 10etara deitu.
- **FIESTA1.6 Diesela salgai.** Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.
- **Karro-denda bat hartuko genuke** abuzturako. Ondo eta libre badago eta alokatu nahi baduzu, dei egin 77 05 22 tfnora 8etatik aurrera. Ondo zainduko dugu.
- **FORD ESCORTa salgai.** Prezio interesgarria. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.
- **Autoa salgai (AUSTIN METRO HLE).** SS-2888-S. Tfnoa: 77 10 20.
- **Kanping gurdia salgai.** 4 personentzako. Tfnoa: 79 06 46. Gauoko 8etatik aurrera.

**Denetarik**

- **Urrezko pultsera galdu** nuen domekan, Eskola Politekniko eta Musakolako barraken artean. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.
- **Urrezko belarririkoa galdu** nuen asteartean Uribe auzoko inguruetan. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.
- **Txakur txiki bat** erregalazten dut. Tfnoa: 79 52 80.
- **Larunbat gauean txamarra galdu** nuen Ekaitz taberna inguruan. Tfnoa: 79 127 20.
- **Giltzak galdu ditut.** Erguin kalea eta Bolintxo okindegiaren artean. Tfnoa: 79 10 20. Nati.

**Aste Gazte**

**Bilborako autobusak**

• Ikasturte honetan legez, hurrengoan ere Arrasatek Bilbora egunero-egunero joateko autobus zerbitzua antolatzeke asmoa du ikasle talde batek. Goizez nahiz arratsaldean. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezue izena.

**Lana**

• Diputazioak lanpostu hauen deialdia egin du: a) Kudeaketa erdi mailako 3 teknikari, b) Zaharren egoitzetako 3 mediku, e) Bizkortze goiztiarrekoko erdi mailako teknikari bat f) 3 menpeko g) nekazaritza peoi bat. Epea: ekainak 21.

**Bekak**

- Euskal Autonomi Elkarte-ko ikasle batentzako egonaldi beka Nevada-Renoko Unibertsitatean, 1994-95 ikasturterako. Euskal Herriko Unibertsitatean diharduten ikasleei zuzendua. EGA titulua edo baliokideren bat izatea beharrezkoa da. Epea: 23.
- 1995ko udan italiara ikasteko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Epea: uztailak 8.
- 10 lankidetzako beka 1994-95 ikasturterako. Ikasle unibertsitarioei zuzenduak. Diru laguntza: 350.000 pta. Epea: uztailak 29.

**Gazte kooperatzaileak**

• Aurten programa honetan parte hartu nahi duzuenok INE-Metik pasatu beharko duzue ekainaren erdialdera. Programa honen helburua garatze-prozesuan dauden herriekin solidaritatea eta kooperazioa izanik, 29 urtetik beherako lizentziatuei nahiz diplomatuei zuzenduta dago.

**Lehiaketak**

• Zumaiko VI. argazki lehiaketa. Gaia: librea. Modalitatea: argazkiak paperean, zuri beltzean. Laborategiko edozein teknika onartzen da. Epea: ekainak 17.

**“Zure gaztaroko grinak ahaztu ahal izateko, malgutasun nahikoa gordetzen duzu zahartzarorako”.**

**DJUMA BARNES.  
“NIGHTWOOD”.**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



# **T**HOMSON TELEBISTA ZINEMA FORMATOAN.



O R A I N  
A R T E  
H O R R E L A  
I K U S T E N  
Z E N U E N

**T**HOMSON  
TELEBISTAK  
B E G I A K  
ZABALDUKO  
D I Z K I Z U



ITURRIOTZ, 15  
ARRASATE  
79 15 16

*Jose Aranzabal*



Seguru joan zaitezen arduratzen da



**MUGARRI**

